



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko uztailaren 29a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzerritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Turkian atxiki zituzten arnasgailuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, deseskalatzea euroeskualdeen arabera egiteko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, errehabilitazioko medikuaren 4598. zenbakidun lanpostu hutsa plantillatik kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, egoitzetan egindako esku-hartzeei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Covid-19aren ondoriozko hilkortasun-tasari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren kokalekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera noiz arte egonen diren funtzionatzen Félix Garrido eta Fiteroko tarteko zentroak. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako zahar-etxeetan gertatutakoa argitzearren auditoria bat abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, ospitale publiko eta pribatuetan Covid-19a duten gaixoentzat bideratutako oheen gehieneko ahalmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer kolektibo hartu duen funtsezko zerbitzutzat Covid-19aren susmoa baieztatzeko PCR probak egiteko eskaria kudeatzearren. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko zuzendaritza-taldeak martxoan eta apirilean egin dituen bileretan hartutako babes eta prebentzio neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Zizurko Osasun Eskualde Oinarrizkoan eta gabeziak dituzten Nafarroako gainontzeko herrietan osasun-laguntza egokia eta bete gabeko lanpostuak betetzea bermatzeko, eta zer epetan hartuko dituen. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuko @clave erregistro-bulegoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, pandemiaren balizko bigarren kutsatze-kolpe baten aitzineko neurriei eta protokoloiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdean 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarte zenbait zerbitzu direla-eta jasotako erreklamazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzerritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, herritarren segurtasuneko zein drogaren aurkako jarduketak atzerritarren kontrolarekin uztartzen dituzten operazioetan Foruzaingoa elkarlanean aritzeari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (19/POR-00330, gero 20/PES-00080 bihurtu zena, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko maiatzaren 11ko erabakiz). Hona Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

“Uste al duzu Foruzaingoak parte hartu behar duela herritarren segurtasuna eta drogen aurkako jarduketak atzerritartasunaren kontrolarekin nahastu eta, horrenbestez, herritarren artean jarrera xenofoboak zabal ditzaketan dituzten operazioetan?”

Galderaren testuingurua da iragan abenduaren 1ean Tuteran gauzatutako polizia operazio bat, zeinetan Foruzaingoak parte hartu baitzuen, beste kidego batzuen artean.

Nafarroako SOS Arrazakeria elkarteak kexa bat aurkeztu zuen, eta kexa horri erantzun zioten bai kontseilari honek bai Migrazio Politiketako eta Justiziako zuzendari nagusi Patricia Ruiz de Iríza-

rrek. Erantzuna gutun bidez igorri zen abenduaren 20an. Hona hemen, hitzez hitz, gutun horren edukia:

“Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuan kexa bat jaso dugu, iragan abenduaren 1eko goizaldean Foruzaingoak izandako jokabidea dela-eta.

– Kexa aintzat hartu dugu eta Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari helarazi diogu, Foruzaingoa haren menpe baitago. Departamentu honen xedeetako bat da pertsona migratzaileen estigmatizazioaren aurkako borroka; hori dela eta, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela ez lotzea pertsona horiek izan ditzaketan kontu administratiboak eta delinkuentzia arruntarekin edo herritarren segurtasunarekin zerikusia duten polizia-jarduketak. Zuen kexan adierazten den moduan, pertsona horien kriminalizazioak arrazakeria soziala zabaltzen laguntzen du.

– Era berean, ez dakigu nola gauzatu zen operatiboa, eta horri buruzko informazioa eskatu dugu, eta galdetuko dugu ea Foruzaingoak “atzerritartasun gaietako eginkizunetan” parte hartu zuen, zuen kexan adierazten duzuen moduan, edota bere jarduna operatiboaren beste alderdi batzuetara mugatu zen.

– Zuen esanetara gaude Nafarroan dauden migratzaileen eta atzerritarren eskubideen alde elkarrekin lanean jarraitzeko, bai eta operatibo zehatz horretan gertaturikoa argitzeko ere”.

Gutun horretan adierazten dena erabat mantenduz, ondoren jakinarazten dizuet Tuterako polizia-etxeko buruak abenduaren 20an bertan 970761 identifikazio zenbakiarekin jarduketa horri buruz eginiko txostenak dioena. Txostena azkar eta eraginkortasunez bidali du Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko

Departamentuak, zuzentzen dudan departamentuak eskatuta.

Txosten horretan zehazten denez, operazioa burutu zen lokala ezaguna da “behin eta berriz eta etengabe kalean izaten diren istiluengatik, goizeko ordu txikietan”; hori dela eta, “polizia-dispositibo bat etengabe izaten da bertan”, eta Foruzaingoak, Polizia Nazionalak eta Udaltzaingoak gauzatzen dute txandaka. Txostenean gehitzen denez, “esku-hartze operatibo bat egin zuten elkarrekin, eta bertan herritarren segurtasun arloko jarduketa konpartitu bat koordinatu zen, polizia kidego bakoitzaren eginkizunekiko berariazkoa”. Foruzaingoaren kasuan, eginkizun horiek Joko eta Ikuskizun Publikoei buruzkoak ziren.

Txostenak nabarmentzen duenez, Foruzaingoak “bertan zeuden pertsona guztiak identifikatu eta miatu zituzten, edozein izanik haien nazionalitatea, haien gauzak miatu zituzten eta errekerimendu polizial edo judizialik zuten egiaztatu zuten”. Zehazten da Polizia Nazionala arduratu zela egonaldi erregularreko egoeran ote zeuden egiaztatzeaz, horretarako eskumen eskusiboa kidego horri baitagokio.

Gertaturikoa kontatu ondoren, ondoko ohartarazpenak egin nahiko nituzke:

– Foruzaingoaren txostenean adierazitakotik ez da ondorioztatzen kidego horrek inoiz ere gainditu duenik legez esleituriko eginkizunen muga.

– Ez da kontseilari honen ardura ezta eskumena ere polizia-operazio bat modu egokian antolatzen ala ez baloratzea. Segurtasun kidego desberdinek legez esleituriko eginkizunak dituzte eta, hori horrela izanda, kontseilari honek ezin du epaitu Foruzaingoak aipatu operazioan egon behar zuen ala ez.

– Herritarren jarrera xenofoboak arazo bat dira, eta bere alderdi guztiei aurre egin behar zaie. Horrekin lotuta, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua bizikidetzaren planak presta daitezkeen sustatzen ari da, bai tokiko mailan bai erkidegoan, arrazakeria eta xenofobia modu oro desagerraraztea ahalbidetzeko eta kulturen arteko bizikidetzaren aldeko apustua egiteko. Gainera, 2021ean departamentuak Arrazakeriaren Aurkako Plan bat taxutuko du.

– Hala ere, uste dugu herri segurtasunari buruzko legeak ez betetzea edota estupefaziante-

ak edukitzea edo haiekin trafikitzea ez dela inolaz ere parekatu behar egoera administratibo irregular batekin. Kasu honetan, arlo desberdinetako jarduketak bat egin zuten denboran eta espazioan; baina Foruzaingoa ez zen izan atzeritartasun gaietako jarduketak gauzatzeko arduraduna.

– Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak uste du egun indarrean dagoen Atzeritartasun Legea aldatu egin beharkeo litzatekeela pertsona guztien eskubide-berdintasuna ahalbidetzeko, eta lanean dihardugu ikuspegi hori ahal dugun topagune guztietan zabaltzeko.

– Gizartearekiko eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekiko pedagogia egokiaren aldeko apustua egiten dugu, azaltzeko zer dakarren egungo Atzeritartasun Legeak; izan ere, lege horrek oinarrizko eskubideak kentzen ditu, hala nola pertsona orok duen eskubidea gizartean eta lanean garatu ahal izateko berme guztiekin, bere sorterrian edo beste herrialde batean.

Azkenik esan nahiko nuke Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak uste duela erabat egokia dela segurtasun indar eta kidegoen eta horien agenteen etengabeko prestakuntza kulturen arteko bizikidetzarekin, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokarekin, pertsona migratzaileen eskubideekin, atzeritartasun arloko legeriarekin eta pertsona migratzaileek Nafarroan eskura dituzten baliabideekin zerikusia duten gaientan, haien eskubideak hobeto babeste aldera.

Zalantzarik gabe, bat gatoz Ruiz Jaso andrea-ren talde parlamentarioak planteaturiko kontu askorekin, esaterako, atzeritartasun arloko legegaldaketekin, egoera administratibo irregularrak delituekin ez parekatzearekin eta oinarrizko eskubideen errespetuari eta pertsona guztiak bereizketarik gabe gizarteratzeari buruzko pedagogia egiteko beharrarekin. Konfiantza osoa dut adostasunerako aukera horrek bidea emanen digula gai horietan guztietan lankidetzaguneak eraikitzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Turkian atxiki zituzten arnasgailuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Turkian atxiki zituzten arnasgailuei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (20PES-00066) Turkian atxiki zituzten arnasgailuei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

1.- Zer egunetan eta zer tokitan paratu dira Turkian atxiki zituzten arnasgailuak?

Nafarroako Ospitalegunearen esku utzi ziren 2020ko apirilaren 9an.

Ez ziren erabili; izan ere, ez zen gaixo kritikoek posturik jarri behar izan ZIUtik kanpo.

2.- Nafarroako Gobernuak noiz erosi zituen arnasgailu horiek? Erantsi kontratazio-espeditaren kopia.

Larrialdiko prozeduraren bidez erosi ziren 2020ko martxoaren 20an, 2020-166 eta 2020-167 zenbakia duten eskarien bitartez. Espedientea ez da oraindik formalizatu.

3.- Zer ezaugarri tekniko dituzte arnasgailu horiek? Kontratuko ezaugarri teknikoen arabera-koak al dira?

2020-166 eskaeraren bidez Oxivent Oxi 4 plus modeloko hamar arnasgailuren hornikuntza kontratatu zen, eta 2020-167 eskaeraren bidez, berriz, Oxivent Oxi 2 plus modeloko bi arnasgailuren hornikuntza. Kontratuko ezaugarri teknikoen arabera-koak dira.

Honekin batera doa bi modelo horien ezaugarri teknikoen orria.

4.- Arnasgailu horiek zer kostu ekarri diote Nafarroako Gobernuari?

Enpresa banatzailearekin adostutakoa, eskaeretan jaso bezala:

- 199.650 euro, BEZa barne, Oxivent Oxi 4 plus modeloko hamar arnasgailuengatik. Bakoitzaren prezioa 19.965 eurokoa da.

- 36.300 euro Oxi 2 plus modeloko bi arnasgailuengatik. Bakoitzaren prezioa 18.150 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

(Oharra: Aipatutako ezaugarri teknikoen orria kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman dago eskuragarri).

Galdera, deseskalatzea euroeskualdeen arabera egiteko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, deseskalatzea euroeskualdeen arabera egiteko aukerari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 20PES-00075 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Mugaldeko herriak eta, oro har, mugaz gaindiko mugikortasuna, ez dira aintzat hartu COVID-19ak eragindako krisia kudeatze aldera orain arte onetsitako araudian. Adibidez, ondotik aipatzen diren plan edo egintza juridikoetatik bakar batean ere ez dira aipatzen mugaldeko herriak:

- Deseskalatze-plana, Ministroen Kontseiluaren 2020ko apirilaren 28ko Erabaki bidez onetsia (ez da mugaldeko herriei buruzko aipamenik egiten).

- Maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez luzatu baitzen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 163/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera.

- Maiatzaren 9ko TMA/400/2020 Agindua, zeinaren bidez ezarri baitziren deseskalatzearen I. fasean mugikortasunaren arloan aplikatu beharreko baldintzak eta zehaztu baitziren mugikortasun segurua bermatzeko beste baldintza batzuk.

- Maiatzaren 21eko SND/427/2020 Agindua, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun-larrialdetik heldu diren zenbait muga malgutzen baitira herri txikietan eta lurralde-eremu txikiagoko toki entitateetan.

Une horretan, mugaz gaindiko auzia soilik jorratu da hirugarren herrialdeei mugak ixtearen

ikuspegi globaletik (Maiatzaren 14ko INT/409/2020 Agindua, zeinaren bidez luzatzen baitira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera nahiz Schengenera atxikitako herrialdeetara ezinbestezkoak ez diren bidaiak aldi baterako mugatzeko irizpideak, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta). Agindu horretan, salbuespen bat ezartzen da mugikortasunari begira, "mugaz gaindiko langile"en kasuan (1.c artikulua).

Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak Espainiako Gobernuari apirilaren 30ean bidalitako gutun baten bidez eta CARUEren maiatzaren 28ko bileran eskatu dio (bai eta Gobernuak Nafarroan duen ordezkari ere) mugitzeko murrizketak malgutu daitezzen mugaldeko herrietan, mugetako langileei buruz Espainiak eta Frantziak sinaturiko akordio osagarrian aipatutakoetan behinik behin (horren arabera, mugaldeko eremutzat joko dira "printzipioz, mugaren alde batean zein bestean 10 kilometrora dauden eremuak". Orobat eskatu dugu mugaldeko herriak deseskalatze-planetan sar daitezzen. Esate baterako, muga igaro ahal izatea merkataritzarako, etxeok bisitatzeko, osasun kontuetarako, azienda kudeatzeko, linea elektrikoa konpontzeko, posta-zerbitzuetarako edo jabetzak kudeatzeko, besteak beste. Bigarrenik, mugaz gaindiko haranen artean larreen erabilera banatzeko hitzarmenak, mugaren alde beteko zein besteko abere-taldeak horretarako mugatutako espazioetan mugitzea ahalbidetzen dutenak. Kasu berezia da Kinto, ia 170 pertsona baitaude arestian adierazitako arrazoiengatik muga igaro behar dutenak baina muga igartzeko baimenik ematen ez zaienak, INT/409/2020 Aginduan jasotzen den salbuespen-egoeran egoteagatik.

Halaber, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatu dio mugaz gaindi mugitzeko arrazoi gisa har dadin proiektuak egiteko esparruan jarduerak sartzeko (POCTEFA eta Euroeskualdea), eta mugak ixtearen inpaktua sartzeko aplikatzen diren pizgarri eta leheneratze neurrien barruan, turismorako eta merkataritzaren sektore-rako berariazko neurriak barne.

Horretaz gain, Pirinioetako Lan Elkartean lantalde bat eratzea sustatu da, COVID-19aren eta mugak itxi izanaren inpaktua aztertzeko. Euskadi-Akitania Berria-Nafarroa Euroeskualdearen esparruan orobat bultzatu dira herritarrei laguntzeko

deialdiak, COVID-19aren eta mugak itxi izanaren ondorioei aurre egiteko ekintzak barne.

Bigarren galderari dagokionez, Nafarroak Europako Batzordeari, Kontseiluari eta Parlamentuari helarazi zaien maiatzaren 9ko Adierazpenean lan egin zuen Erregioen Batzordean: "Toki eta erregio entitateak, Europak COVID-19aren krisiari erantzuteko eragile". Adierazpen horretan Nafarroak ere sinatutako honako enuntziatu hauek jasozten dira:

8. uste du beharrezkoa dela mugaz gaindiko eta erregioen arteko koordinazioa, europar herritarrei osasun zerbitzuak emanen bazaizkie; bereziki, konfinamendua arian-arian altxatzen den bitartean. Halaber, lankidetzan ebaluatu egin behar dira osasunaren arloko eskumenak berrikusteko modu ezberdinak, subsidiariorotasun-printzipioarekin bat. Uste du, halaber, toki eta erregio entitateek deseskalatze eta irtete estrategia guztia taxutzean parte hartu behar dutela.

20. kezkatuta dagoela adierazten du COVID-19arekin lotutako krisiak berealdiko eragina izan duelako mugaz gaindiko lankidetzan barne nahiz kanpo mugetan eta kalte handiak eragin dituelako toki eta erregio entitateen iraupen luzeko eguneroko lankidetzan, enpresetan, eskoletan, unibertsitateetan nahiz beste erakunde batzuetan. Mugaldeko erregioen leheneratze ekonomiko azkar baterako, beharrezkoa da azkar ken daitezzen lege- nahiz administrazio- trabak. Europako Batzordeak proposatutako "Mugen Mekanismo Europarra" k muntako eginkizuna izan lezake prozesu horretan. Hortaz, Europar Batasuneko legegileek "Mugen Mekanismo Europarra" laster onartzea eskatzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 193.4. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, errehabilitazioko medikuaren 4598. zenbakidun lanpostu hutsa plantillatik kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, errehabilitazioko medikuaren 4598. zenbakidun lanpostu hutsa plantillatik kentzeari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du errehabilitazioko medikuaren lanpostu huts bat plantillatik kentzeari buruz (20PES-00047). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Arreta goiztiarra erantzukizun publiko bermatuko zerbitzu bat da; hartara, osasungintzako,

hezkuntzako nahiz gizarteko sektoreek baliabideak eta babesa eskaini behar dizkiete adingabeei, familiei eta ingurukoei. Horren helburua da erantzun bat ematea, ikuspegi integral batetik, garapeneko asaldura edo nahasmendua duten neska-mutikoek erakusten dituzten premia iraunkor nahiz aldi baterakoei, edo halakorik pairatzeko arriskua dutenei, izaera biologiko edota psikosozialeko faktoreen mende egoteagatik. Jarduketa guztiak bideratuta daude adingabeen garapen hobezina ziurtatzera, familien guraso-eskumenak indartzera eta gizarte kohesibo eta inklusibo baterantz jotzera.

Helburu horren lorpenean inplikaturik dauden departamentuek urteak daramatzate modu koordinatuan lan egiten; halatan, lan horren fruitua izan zen Arreta Goiztiarreko Sare Integrala (abuztuaren 28ko 198/2019 Foru Dekretuaren bidez arautua), zeinetan sartzen baitira Osasun, Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako departamentuek arreta goiztiarraren esparruan adingabeen eta familien esku jarritako prestazioak, zerbitzuak eta baliabideak, halako moduan non zerbitzuak bikoiztea

ekiditen baita eta batera esku hartzea bermatzen baita.

Hori horrela, uste dugu Nafarroako Osasun Zerbitzuak eman behar duela errehabilitazioko mediku espezialistak ematen duen arreta espezializatua –hala ari zen egiten–, eta ez dela beharrezkoa errehabilitazioko medikuaren lanpostu hutsa mantentzea Arreta Goiztiarreko Zentroaren egiturari, sarean lan egiteak ziurtatu egiten baitu zerbitzu hori ematen dela.

Hori dela-eta, Eskubide Sozialetako Departamentuaren Arreta Goiztiarreko Zerbitzua arautzen duen irailaren 9ko 94/2019 Foru Aginduak ezartzen du profesional teknikoak adituak izanen direla haurren garapenean eta arreta goiztiarrean, eta diziplina askotako profesionalek osatzen ahal dutela taldea, horietako bakoitzerako ratio zehatzik ezarri gabe. Foru aginduak ezartzen duenez,

Osasun Departamentuari dagokio zerbitzu espezializatuak ematea, eragingarriagoa baita departamentuek sarean lan egitea zerbitzu horien erabilitzaileen beharrezanean modu integralean erantzuteko.

Bukatzeko adierazi behar dizut Eskubide Sozialetako Departamentuak ez daukala errehabilitazioko medikurik bere plantillan. Arreta mediko espezializatua Osasun Departamentuaren eskumena da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, egoitzetan egindako esku-hartzeei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, egoitzetan egindako esku-hartzeei, detektatutako balizko zabarkeriei eta epe ertainerako kudeaketari begira ateratako ondorioei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 5eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera bat egin du (20/PES-0061) zahar-etxeen kudeaketa dela-eta egindako esku-hartzei buruz. Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilari naitzen aldetik eskatutako dokumentazioa igortzen diot eta honako informazio hau ematen diot:

Parlamentari horrek honako galdera hauek egin ditu zahar-etxeen kudeaketari buruz: Egoi-

tzen egoeraren kudeaketari dagokionez, zer esku-hartze egin da eta balizko zer zabarkeria detektatu dira? Nafarroako Gobernuak zer ondorio atera ditu horiek epe ertainean kudeatzeari begira?

Zahar-etxeetan martxoaren 6an hasi ziren COVID-19aren pandemia dela-eta lanean, Osasun eta Eskubide Sozialetako ministerioetako arduradunekin bideokonferentzia bat egin ondoren; izan ere, bi ministerio horiek gizarte zerbitzuen arloan –bereziki, zahar-etxeetan, pertsona horiek bereziki ahulak izateagatik– kontuan hartu beharreko gomendioen lehen zirriborroak prestatu zuten. Martxoaren 9an, bilera presentzial batera deitu zitzairen zahar-etxe guztietako zuzendariari, non Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko teknikariek gaixotasun berriaren ezaugarriak eta une horretan ustez hartu behar ziren neurriak azaldu baitzituzten. Hortik aurrera, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia zahar-etxeekin zenbait esparru lantzen hasi zen: gomendioen agiria taxutu; zerbitzuak ixteari buruzko komunikazioa igorri; laguntzako telefono-zerbitzua abiarazi (24 orduz, jaiegunak barne); Osasun Departamentuarekin koordinatu zahar-etxeen balorazio bateratua egiteko eta jarduketako protokoloak igortzeko; egunero

datuak biltzeko sistema informatikoa, zahar-etxe bakoitzeko kasu-kopuruari dagokionez (martxoaren 17tik aitzina), eta balorazio-zentroko profesionalek osatutako laguntza-taldea abian jarri (zahar-etxeetara joan ohi da beharrikanak baloratzeko eta beharrezkoak diren babes-neurriak kudeatzen laguntzeko). Laguntza-talde horrek pandemia osoan zehar jarraitu du lanean (zahar-etxe bakoitzean erreferentziazko pertsona bat dago).

Laguntza-talde horrek martxoaren lehenengo astean egin zuen lehendabiziko bisita presentziala: helburua zen baloratzea zer neurri hartu dituzten zentroek kutsatzeak prebenitzeko, neurriok gauzatzeko izan litzaketan zailtasunak identifikatzeko eta balizko kasuak edo baieztatuak isolatu behar izanez gero sektorizazioari dagokionez gomendioak egiteko, arrisku handieneko egoiliarak identifikatzeko, familientzako informazioa kudeatzeko eta familiak eta egoiliarak harremanetan egoteko. Bisita horien ondotik, erreferentziako pertsona bakoitzak txosten bat egin zuen eta, arriskuaren arabera (kasu-kopurua eta antolamendurako ahalmena) hiru jarduketa-maila ezarri ziren (trinkoa, ertaina edo arina), eta halaxe sailkatu zen zahar-etxe bakoitza eta ezarri zen horietako bakoitzerako beharrezkoa zen ikuskapen-maila.

Hauek dira horietako bakoitzaren berariazko esku-hartzea baldintzatu zuten faktoreak: laneko bajen kopurua (zenbait kasutan, zahar-etxearen zuzendaritzan ere eman ziren), birusaren hedatze azkarra eta isolamendua ziurtatzeko egiturazko zailtasunak. Halatan, esku-hartze ezberdinak egin dira, beharrikanaren zein zen:

a) Osasun-larrialdia antolatzen laguntzeko zuzendaritzako langileak zuzkitzea (bost zahar-etxe).

b) Guneak paratzea egoitza kanpo, COVID-19ak kutsatu gabeko erabiltzaileak bertan birkolokatzeko, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan ezarritakoaren arabera kasuak isolatzea erraztearren (hiru zahar-etxe).

c) COVID-19ak kutsatutako egoiliarak bereziki prestatutako tarteko baliabideetara eramatea (14 zahar-etxe).

d) Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak zuzenean kontratatutako zaintzaile profesionalak paratzea.

e) Lan egiteko moduan diren profesionalen zerrendak ematea, zahar-etxeek beraiek kontratatu ahal izan zituzten. Langile kontratatu berri

babes-neurriari buruzko oinarriko prestakuntza eman zien Osasun Departamentuak.

Eskubide Sozialetako Departamentuak tarteko bi baliabide gaitu ditu COVID-19ak kutsatu baina ospitaleratzetik behar ez zuten pertsonak artatzeko; bata Iruñean (Félix Garrido egoitza-etxean), eta bestea Tuteran (Fiteroko bainuetxeko Palafox Hotelean). Kasu gehien zeuzkaten zahar-etxeetako egoiliar batzuk irteteak erraztu egin du COVID-19ak kutsatutakoak isolatzeko sektorizazio-neurri egokiak ezartzea.

Eskubide Sozialetako Departamentutik ezin dugu hitz egin, une honetan, zahar-etxeetan pandemia kudeatzean zabarkeria egoerak gertatu izanaz. Hartu dituzten neurriak Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak berak haiei helarazitakoak ziren, Osasun Publikoaren Institutuak eta Osasun Ministerioak unean unean helarazitako informazioan oinarrituta. Materialaren eskuragarritasuna hasieran mugatuta egon izana eragozpena izan zen departamentuarentzat, eta hori gainditzen saiatu zen premia gorriagoa zeukaten zentroein materiala banatuta. Zahar-etxeok zuzendaritzaren lidergo-profilak eta osasun-langilerik ezak (erizaintza) – izandako bajengatik eta antolakuntzan lehendik zeuden arazoengatik– zaildu egin dute pandemiaren kudeaketa zahar-etxeetan, nahiz eta ez duen ematen horrek emaitzekin zerikusirik duenik. Edozein kasutan, Eskubide Sozialetako Departamentuak eskatu duen auditoretzak lagunduko du zehatzago definitzen zeintzuk diren esku hartu beharreko funtsezko osagaiak, etorkizuneko osasun-krisietan kutsatzeak minimizatu ahal izateko.

Egoitza-zentroetako kudeaketari buruzko aurretiazko ondorioei dagokienez, epe ertainera beharrezkoa da egungo eredia berrikustea zentroen egiturari dagokionez (gela bikoitzak vs gela indibidualak, bizikidetasun-unitateak), langileen antolaketari dagokionez (egoiliarren txandakatzea murriztea) eta esku-hartze ereduari dagokionez (pertsona arretaren erdigunean). Departamentuan apustu egiten jarraituko dugu zahar-etxeak pertsonen lehentasunak eta nahiak errespetatzen diren bizilekuak izan daitezzen, pertsonen bizi-proiektuarekin segi dezaten lagunduz, egoerak norberaren bizilekua abandonatzera bultzatzen duenean. Gure apustua ez da zahar-etxeak baliabide “ia-ia ospitalekoak” bihurtzearen aldekoa, non osasuna mantentzera bideratutako antolaketa gailenduko baitzaio egoiliar bakoitzarentzat egokitzen ahal zaion ingurune fisiko baten eraikuntzari, gainontzeko erabiltzaileekin partekatuko dena. Zahar-etxeetako osasun-laguntza esparru publikotik indartu nahi dugu, non oinarriko osasun-

laguntzako ekipoen eta zahar-etxeetako langileen arteko koordinazioa ona izanzen baita, non eskuhartze proaktibo batek gaixotasun-egoerak artatzea ez ezik autonomiaren eta mendekotasunaren prebentzioa lantzea ahalbidetuko baitu. Bukatzeko: administrazio publikoak sistemaren gaineko gobernantza mantendu beharra dago, pandemian egin den moduan, halako moduan non departamentuak zahar-etxeen gaineko ikuskapena mantenduko baitu (ez bakarrik plaza itunduak dauzkatena, ezpada zentro pribatuena ere),

atentzioaren kalitatea ziurtatzeko eta indartu beharreko alderdiak identifikatzeko, arreta-eredua aldatzeari begira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Es kubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Covid-19aren ondoriozko hilkortasun-tasari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Covid-19aren ondoriozko hilkortasun-tasari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak galdera egin du (20/PES-00074) egoitzetako hilkortasun-tasari buruz. Hona Nafarroako Gobernu-ko lehendakariaren erantzuna:

Iragan apirilaren 30ean, Osoko Bilkuran parlamentari naizen honi ahoz emandako erantzunean, Gobernu-ko lehendakariak honako hau adierazi zuen: "egoitzetako hilkortasun-tasa berbera da herrialde guztietan".

Gobernu-ko lehendakaria zer datu ofizialetan oinarritu zen hori baieztatuzko?

Zein da 100.000 biztanleko hilkortasun-tasa Nafarroako egoitzetan eta munduko herrialde guztietan, hori baita parlamentari naizen honek nire mintzaldian aipatu zuena?

International Long Term Care Policy Network-ek egindako Mortality associated with covid-19 outbreaks in care homes: early international evidence aztelana igortzen dizut, hor aurkituko baituzu eskatutako informazio guztia eta hori izan baitzen ahozko galdera hari erantzuteko erabili zuena.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

(Oharra: Aipatu azterlana kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman dago eskuragarri).

Galdera, Zubiarte Euskaltegiaren kokalekuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zubiarte Euskaltegiaren kokalekuari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioak 20-PES-00055 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2001ean, Hezkuntza Departamentuak eta Uharteko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren arabera, besteak beste, Uharteko Udalak konpromisoa hartu baitzuen "Hezkuntza eta Kultura Departamentuari doan lagatzeko Miravalles ikastetxearen egoitza nagusiaren erabilera". Uharteko Udalak eta MRA sustatzaileak 1999ko uztailaren 26an onetsitako hitzarmenak ezartzen zenez, eraikina departamentuaren esku geratu behar zuen gehienez ere 2001eko ekainaren

30etik aitzina, bertan Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa eta Miluze Euskaltegia paratzeko. Eraikin horren erabileraren lagapena 20 urterako egin zen, 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina zenbatuta".

Hortaz, eraikinaren lagapena 2021eko abenduaren 31ra bitarte egonen da indarrean.

2020ko martxoaren 4an, Hezkuntza Departamentuko arduradunek bilera bat izan zuten Uharteko alkatearekin, higiezinaren lagapenaren luzapena aztertzeko. Bilera hartan, alkateak adierazi zuen udalaren asmoa dela higiezina epe ertainean berreskuratzea, nahiz eta prest egonen litzatekeen lagapena beste urtebetez luzatzeko (luzatzeko aukerarekin), udalaren ahalmen ekonomikoa gorabehera.

Bestalde, departamentu honek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu dio Zubiarte Euskaltegiaren eta EIBZren egungo beharrezkoen programari erantzuten dion higiezin bat esleia diezaion Iruñerrian, baina orain arte ez du inolako higiezinik eskaini.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera noiz arte egonen diren funtzionatzen Félix Garrido eta Fiteroko tarteko zentroak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera noiz arte egonen diren funtzionatzen Félix Garrido eta Fiteroko tarteko zentroak. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera noiz arte egonen diren funtzionatzen Félix Garrido eta Fiteroko tarteko zentroak (20/PES-00067). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Gaur egun, Fiteroko bainuetxeko Palafox Hotelean paratutako baliabidea jada itxita dago (hain zuzen ere, maiatzaren 28an –osteguna– itxi

zen), eta Félix Garrido egoiza-etxean paratutakoa, berriz, gaur, ekainak 2, itxi da, ingresatuta dauden azken pertsonak atera ondotik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Nafarroako zahar-etxeetan gertatutakoa argitzearren auditoria bat abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patricia Perales Hurtado andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako zahar-etxeetan gertatutakoa argitzearren auditoria bat abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak galdera egin du Nafarroako zahar-etxeetan gertatutakoa argitzearren auditoria bat abian jartzeari buruz (20PES-00077). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz informatzeko duena:

- *Nola egingen da auditoria hori?*

Kanpo-enpresa espezializatu batek egingen du auditoria, eta analisi independente bat egingen du zahar-etxe bakoitzak eginiko urratsei buruz, bai eta Nafarroako Gobernuak COVID-19aren pandemiari aurre egiteko abiarazitako neurriei buruz ere.

- *Auditoriaren helburuak, epeak, prozedura eta prozesu horrekin zerikusia duen guztia.*

Lanaren helburu nagusia da sakonki ezagutzeari buruz zahar-etxeen eta ezgaituen egoitzen egoera, COVID-19aren krisialdian zehar izan duten jardura,

na, eta COVID-19aren eragin handiago edo txikiagoa baldintzatu ahal izan zuten zirkunstantziak, eta etorkizunari begirako hobetze-gomendio eta -proposamenak taxutzea.

Hauek dira berariazko helburuak:

- Egoitza bakoitzari buruzko oinarritzko informazioa edukitzea, batez ere COVID-19ak egoitza bakoitzean eragin handiagoa edo txikiagoa izatea ekarri ahal izan duten alderdiei buruzkoa, ekipamenduei, profilei, antolaketa-sistemei eta abarri dagokionez.

- Aztertzea nola jardun duten eragile ezberdinek (osasungintzako laguntzak, Gizarte Eskubide-etako Departamentuaren laguntzak), eta egoitza bakoitzean, zer neurri hartu ziren, zer bitarteko eduki zituzten eskueran eta zer heinetan izan ahal izan zuten erantzunek efektu handiagoa edo txikiagoa COVID-19aren eraginean (erantzunen egokitasuna).

- Identifikatzea zein diren berrikusi eta, kasu bada, egokitu beharreko elementuak (baliabide eta bitartekoekin, antolaketa-sistemekin, ekipamenduekin eta abarrekin zerikusia dutenak), eraginik handienekoak izateagatik COVID-19aren balizko berragerpen baten, beste pandemia batzuen edo antzeko arriskuen aurrean.

- Zentro ezberdinen arrisku-mailaren kategorizazio bat identifikatu eta definitzea, une oro gainbegiratzeko modukoa den adierazle-multzo batean oinarrituta, alerta goiztiarrak detektatzeko eta prebentziorako jarduteko balio dezaketanak.

- Gomendioak egitea segimendu-sistemei, arrisku-planei eta egingarri diren bestelako neurri

batzuei buruz, egoitzak eta haiei lagundu behar dieten erakundeak hobeto prestatuta egon daitezkeen okerbideko egoeren, alerten edo larrialdien aurrean jarduteko.

Foru Komunitateko 71 zahar-etxeetako bakoitzari eta ezgaituentzako 49 egoitzei buruzko informazioa bilduko du auditoria horrek. Amaierako txostenean informazioa eskainiko da bai metatuta bai zentro bakoitzerako zehaztua, muntaduntzat jotzen diren alderdietan. Denboraren aldetik, jasotako datuak izanen dira egungo egoerari buruzkoak eta, bilakaeraren alderdi batzuetarako, martxoaren 14tik aurrerako epeari buruzkoak, data hori izaki pandemia-deklarazioa egin zenekoa.

Lanak hiru fase izanen ditu: 1) Galdetegia eta adierazle-sistema taxutzea; 2) landa-lana, ustiapena eta emaitzen analisisa; 3) kontrastatzea eta amaierako txostena. Lehen fasea hasi da jadanik, eta aurreikuspena da amaierako txostena abuzturako egotea eskuragarri.

Gai horri dagokionez, jakin nahi nuke, halaber, prozesu horretan guztian egoitzetan inolako salaketarik egon den, artxibatu den, edo une honetan ba ote dagoen indarrean jarraitzen duenik.

Hertsiki salaketa denik ez da inolakorik iritsi ez ikuskapen zerbitzura, ezta zuzenean ere Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziara. Mezu elektronikoak, gutunak eta familiartekoen zenbait dei jaso dira, zentro batzuen egoera zehatzari buruz galdezka edo beren ahaidearen egoera partikularrari buruz kontsultatzeko, baina ez da salaketa espliziturik erregistratu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, ospitale publiko eta pribatuetan Covid-19a duten gaixoentzat bideratutako oheen gehieneko ahalmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ospitale publiko eta pribatuetan Covid-19a duten gaixoentzat bideratutako oheen gehieneko ahalmenari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (20PES-00071), Covid-19a duten gaixoentzat ospitale publikoetan eta pribatuetan bideratutako oheen gehieneko ahalmenari buruzkoa. Hona Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

Honekin batera txosten xehakaturia bidaltzen da, kritikoen nahiz arrunten unitateetan oheek duten erabilerrari buruzkoa, Nafarroako Foru Komunitateko ospitale publiko nahiz pribatuetan.

Jasotzen diren aldagaiak honako hauek dira:

1. Oheen egoera

- Erabilgarriak
- COVID-19a dutenek okupatuak
- COVID-19az bestelakorik dutenek okupatuak

2. COVID-19aren kasuen senda-agiriak azken 24 orduetan

Hori guztia, ohe hauetarako: Arnasgailudun unitate kritikoak/Arnasgailurik gabeko unitate kritikoak/Ospitaleratze arruntak/Etxeko ospitaleratzea (Ministerioak ez zituen azken horiek eskatu)

Eransten den informazioa bat dator Osasun Ministerioari egunero eta homogeneoki bidalitakoarekin.

Barne harturiko epea doa martxoaren 27tik (parametro ezberdinetarako baliozkoturiko informazioa, estatu-mailan konparagarria) maiatzaren 28ra arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

(Oharra: Aipatu informazioa kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman dago eskuragarri).

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fisioterapeuta izateko lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Galdera 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera errepikatu du (19PES-00181), zeinaren bidez “informazioa eskatzen baitu fisio-

rapeuten lan-eskaintza publikoari buruz”. Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

Jarraian erantsitako estekan berriki argitaratu den bezala, lan-eskaintza publikoaren bilakaerari buruzko aurreikuspena paratu da, eta ekainaren 1etik aurrera jarraipena ematen zaie alarma-egoeraren etenik utzitako epe guztiei.

<https://empleosalud.navarra.es/es/>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua xedaturikoa betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer kolektibo hartu duen funtsezko zerbitzutzat Covid-19aren susmoa baieztatzeko PCR probak egiteko eskaria kudeatzearren.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer kolektibo hartu duen funtsezko zerbitzutzat Covid-19aren susmoa baieztatzeko PCR probak egiteko eskaria kudeatzearren. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera hau (20PES-00064) aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuak zer kolektibo hartu du funtsezko zerbitzutzat COVID-19aren susmoa baieztatzeko PCR probak egiteko eskaria kudeatzearren, proba hori gaixotasunaren sintometikiko herritar guztiei egiten ez zitzaien bitartean?". Horri buruz, Osasuneko kontseilariak honako informazio hau bidaltzen du:

SARS-COV-2 (COVID-19) gaixotasuna dela eta jarduteko prozeduraren azken bertsioan, apirilaren 5ekoan, adierazi bezala –prozedura hori jada bidali genion Navarra Suma taldeari–, funtsezko zerbitzutzat harturiko taldeak, erabil-

tzaileekiko kontaktuan dauden osasun-etxe eta egoitza-zentro soziosanitarioetako profesionalen gain, honakoak ziren:

- Poliziak, suhiltzaileak, 112ko langileak.
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileak.
- Alkateak eta Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta departamentuetako kabinetek.
- Etxez etxeko arretako zerbitzuetako langileak (Iruñeko Udala eta mankomunitateak).
- Generoko indarkeriako egoeran dauden emakumeentzako harrera-baliabideetako langileak.
- Hondakin-bilketako langileak.
- Ehorztetxeetako langileak.
- Apartatu honetako langileak artatzen dituzten laneko arriskuen prebentzioko zerbitzuetako langileak.
- Eta unean uneko egoeraren arabera funtsezko zerbitzuetako profesionaltzat hartuak izan daitezkeen horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

Galdera, Osasun Departamentuko zuzendaritza-taldeak martxoan eta apirilean egin dituen bileretan hartutako babes eta prebentzio neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Departamentuko zuzendaritza-taldeak martxoan eta apirilean egin dituen bileretan hartutako babes eta prebentzio neurriei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera bat (20PES-00073) aurkeztu du, "Osasun Departamentu zuzendaritza-taldeak martxoan eta apirilean egin dituen bileretan hartutako babes eta prebentzio neurriei" buruzkoa. Hori dela-eta, Osasuneko kontseilariak honako informazio hau bidaltzen du:

1. Apirilean zehar zalantzarik gabe, eta martxoaren parte handi batean zehar ere, Osasun Departamentuko zuzendaritza-taldearen bileretan mantendu egin ziren pandemia globalean aplikatzekoak diren prebentzio- eta babes-neurriak oro har, eta aldentze fisikokoak partikularki. Nahiz eta egia den otsailaren bigarren partean zehar eta martxoko lehenbiziko egunetan ez zirela beti behar bezala errespetatu beharrezkoak ziren prebentzio- eta babes-neurriak.

2. Bai, nahiz eta, aurreko paragrafoan adierazi dugun bezala, agian lehenagotik hasi beharko genuen haiek sistematikoki erabiltzen.

3. Berrito ere, eta lehen puntuan adierazi bezala, martxoko lehenbiziko egunetatik aurrera

bai, beti mantentzen zen gomendaturiko distantzia fisikoa bileretan zehar.

4. Pandemiaren lehenbiziko asteetan (otsailean eta martxoaren hasieran) bertaratu presentzialen kopururako ez zegoen gehieneko mugarik. Alabaina, erabilitako bilera-gelak handiak ziren (Nafarroako Ospitaleguneko G pabiloiko batzar-aretoa, Conde Olivetoko 6. solairuko batzar-aretoa, Nafarroako Jauregiko Elizondo aretoa). Geroago, eta jada pandemiaren faserik akutuean zehar, bilerak telematikokoak eta/edo bideokonferentziazkoak izan ohi ziren, eta presentzialak marjinalki baino ez. Azken asteotan, Baluarte aretoa (400 metro karratu) erabili izan dugu bileretarako, presentzia fisikoa eta bideokonferentziak uztarturik (departamentuarterko batzordeak, trantsiziorako batzordea, zuzendaritza-batzorde handiagotuak eta abar).

5. Bai. Aurreko puntuetan esaten den bezala, pandemiaren lehenbiziko egunetan okerrak egin ziren, bai lan-bilerei dagokienez bai agur eta topaketa pertsonalei dagokienez. Eta horren ondorioz, egia da kutsatze saihegarriak gertatu ahalko zirela.

6. Osasun Departamentuaren zuzendaritzako pertsonak eta Osasunbidekoek beti, eta koherentzia logikoz, egin izan dute ahalegina populazio orokorrari gomendaturiko osasun-neurriak errespetatzeko, hala kasu konfirmatuekiko kontaktuei nola pandemiarekin zerikusia duten gainerako kasuekiko kontaktuei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Zizurko Osasun Eskualde Oinarrizkoan eta gabeziak dituzten Nafarroako gainontzeko herrietan osasun-laguntza egokia eta bete gabeko lanpostuak betetzea bermatzeko, eta zer epetan hartuko dituen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak Zizurko Osasun Eskualde Oinarrizkoan eta gabeziak dituzten Nafarroako gainontzeko herrietan osasun-laguntza egokia eta bete gabeko lanpostuak betetzea bermatzeko, eta zer epetan hartuko dituen. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatzizko galdera bat (20PES-00081) aurkeztu du, honela dioena:

“Zer neurri ezarriko dira Zizurko osasun eskualde oinarrizkoan eta Nafarroako gainontzeko herrietan, osasun-laguntza egokia eta bete gabeko lanpostuak betetzea bermatzeko? Zer epetan?”

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak honako informazio hau adierazten du:

Nafarroak aurrerapauso handiak eman ditu bere osasun-sisteman, baina gaur egun askotariko erronkei aurre egin beharrean dago, eta beharrezkoa da erantzunaren funtsezko parte gisa oinarrizko osasun-laguntza indartzea eta berrantolatzea.

Familiako medikuntzan eta pediatrian dagoen fakultatibo-eskastasuna ikusirik, Osasun Departamentuak zenbait ildo jorratzeko asmoa dauka.

Lehenik eta behin, Nafarroako Gobernuak 2019ko ekainean onetsitako Oinarrizko Osasun Laguntzako estrategia gogotsu garatzeari ekitea.

Bigarrenik, azterlan tekniko xehatu bat egin ondoren eta partaidetza- eta ekarpen-prozesu bat aurrera eraman ondoren sozietate zientifiko, lanbi-

de-elkargo, sindikatu, udal-ordezkarri eta zeresana duten beste kolektibo batzuekin, Nafarroan osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoa berrantolatzeko proposamen bat aurkeztea Nafarroako Parlamentuari, aintzat har eta onetsi dezan, halatan zerbitzuaren egokitasuna ziurtatze aldera, lehentasuna emanez denboraren arabera larrialdiari eta arreta jarraitura bideraturiko baliabideak eskuragarritasun- eta efizientzia-irizpideen bitartez egokituz.

Hirugarrenik, Osasun Departamentuak, Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin eginiko negoziatuetan, zenbait neurri adostu ditu, egoera samurtzea lor dezaten itxaropentsu, aurreko bi puntuetan azaldutako tankeratzea mamitzen den bitartean. Neurri horietan sarturiko bermea da gaixo bakoitzeko 10 minutu edukitzea Nafarroako fakultatiboaren agenda guztietan. Halaber aurreikusten da ordeztu ezin izan diren profesionalen hutsunea estaltzearen eginiko esfortzua ordaintzeko sari ekonomikoa igotzea eta gaixo-kopuruan izandako gairikina ordaintzeko sari ekonomiko bat ezartzea (adierazitako Oinarrizko Osasun Laguntzako estrategia jadanik aipatuan adierazitako kopuruak gairikinen direnean), eta orobat daukagu asmoa betetzen zailtzen diren postuetan diharduten profesionalen ere sari ekonomiko bat ematea.

Laugarrenik, eta neurri horiekin batera, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak asmatan du nafar herritarrei arreta bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea.

Besteak beste, aipagarri dira: profesional ezberdinei esleituriko lan-zamak berrantolatzea; erizaintzako goi-trebetasunen eredu berriak ezartzea; administrari-profesionalen prestakuntzarako programa bat egitea gaixoen banaketa hobea lortuko duena, gaixoak beren osasun-premiei soluzioa emateko profesionalik egokienengana bideratuz; osasun-eskualde oinarrizko bakoitzaren problematika zehatza aztertu eta profesionalen berrantolaketarako proposamenak egitea arazo zehatz bakoitzari erantzute aldera.

Ingurune egoki bat sorturik, profesionalen modua emanen dena gauzak nola egin erabakitzekoan protagonista izateko; toki-lantaldeei

beren testuinguruan beharrezkoak diren aldaketei buruzko erabakitzea erraztuz, toki-berrikuntzari pixkanaka esparru handiagoa emanik. Profesionalek proaktiboago behar dute izan erkidegoaren osasungintzan, eta gutxiago behar dute izan eskaera funsgabearen hauspotzaile.

Gaur den egunean, problemarik larrienetako bat dugu fakultatiboan agenden saturazioa, eskaera oker kudeatetik eta beharrezkoen erantzun egokia emateko balio duen kontsultatze-arrazoiaren hautaketarik ez egitetik eratorria. Halako kudeaketa-bitartekoak ezarri behar dira non modua emanen baitute gain-eskariari premiaren eta urgentzia-mailaren arabera erantzuteko, ziurtatuz ezen eragile bakoitzak bere eginkizunak betetzean ebazte-gaitasunik handienaz jokatu duela.

Beharrezkoa da, halaber, informazio/kontzientziazio programa bat egitea osasun-zerbitzuen erabilera egokiari buruz.

Gaur den egunean, Zizurren gertaturikoa bezalako egoerak suertatzen direnean, bilerak egiten dira profesionalen lantaldearekin, biztanleriari zerbitzu egokia ematea ahalbidetuko duten irtenbideak aurkitu nahian, berrmatuko dutenak zerbi-

tzuaren etengabetasuna eta eritasun kronikoak dituzten gaixoei jarraipen egokia egitea.

Berrantolaketa-proposamenek honakoak bildu ohi dituzte: praktika aurreratuak dituzten erizaintzako profesionalak gehitzea, eritasun kronikoak dituzten gaixoak beste profesional batzuei esleitzea aldi baterako, horrela jarraipen egokia egin dakien lortzeko, eta profesionalen lanaldiaren ordu-kopurua gehitzea, sorturiko eskariari erantzutea lortzearren.

Laburbilduz, gure helburua da oinarrizko osasun-laguntza autonomoagoa izan dadin lortzea, ebazte-gaitasun handiagoa izanen duena, eta lan egiteko modu berriak antolatzea, osasun-etxean eta nor bere etxean artatzeko modu berrien arabera, erizaintzako profesionalen zereginaren aldeko apustu argia eginez. Haien eskurantzek hobetu beharra dute, haien trebetasun-mailaren arabera izan daitezten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

Galdera, Nafarroako Gobernuko @clave erregistro-bulegoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko @clave erregistro-bulegoei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikiriko foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-00084), non honako informazioa eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuaren mendeko @clave erregistro-bulego guztiak egon al dira erabilgarri larrialdi egoeran zehar, nortasuna modu presentzian kreditatu eta modu elektronikoa operatu ahal izateko? Zenbait bulego itxita egon baldin badira, herritarrei eta Gobernantza Publikoko Zuzendaritza Nagusiari informatu al zaie, haren webgunean gorabehera horren berri eman zezan?

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez, alarma-egoera deklaratu zen lurralde nazional osoan, osasun-krisiari aurre egite aldera. Egoera hori zenbait aldiz izan da luzatua.

463/2020 Errege Dekretu horretako 7. artikulua ezarri zuen ezen pertsonak honako jarduerak egiteko baizik ezin zirela ibili erabilera publikoko bide edo guneeetatik:

a) Elikagaiak, farmazia-produktuak eta ezinbestekoak erosteko, bai eta, 10. artikulua ezarri-

takoari jarraikiz, beste produktu batzuk erosteko eta zenbait zerbitzu emateko.

b) Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joateko.

c) Lantokira joateko, bertan beren lan-, lanbide- edo enpresa-prestazioa egiteko.

d) Ohiko egoitzara itzultzeko.

e) Laguntza- eta zaintza-zereginak betetzeko edadetuei, adingabeei, mendekoei, ezgaituei eta bereziki zaugarriak diren pertsonen dagokienez.

f) Finantza- eta aseguru-entitateetara joateko.

g) Ezinbesteko kasuan edo beharizanagatik.

h) Antzeko izaerako beste edozein jardueraren kasuan.

Bistan denez, murriztapen horiek beren ondorioak izan zituzten Administrazioek eman ohi duten arreta presentzian, jardun hori ez baitzegoen zirkulazioa justifikatzen zuten artean.

Egoera horren ondorioak samurtzeko neurri gisa, aipatu Errege Dekretuak xedatu zuen eten eginen zirela administrazio-, preskripzio- eta iraungitze-epaiek.

COVID-19 koronabirusaren pandemiak sorturiko osasun-krisiaren ondoriozko egoera ohiz kanpokoak ez du alarma-egoeraren deklarazioa soilik ekarri; horrez gain, arlo ezberdinetan zenbait neurri hartzea behartu du.

Neurri horien artean nabarmentzeko modukoa da ezen Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren martxoaren 30eko 54/2020 Foru Aginduaren bitartez jardun presentziala eten egin zela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako lantokietan, salbu eta funtsezko zerbitzu publikoien zegoenez, koronabirusaren (COVID-19) bilakera epidemiologikoaren ondorioz.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren Herritarrentzako Laguntza Bulegoak itxi egin ziren arreta presentzialerako, birusaren hedapena ekiditeko prebentzio-neurri gisa.

2020ko martxoaren 20tik aurrera, Nafarroako Gobernuaren herritarrentzako laguntzarako lantaldea www.coronavirus.navarra.es web orrian argitaratzen ari da arlo ez-sanitarioko galdera arrunten dokumentu bat, herritarrak aktiboki informatzeko. Tresna hori funtsezkoa da oraingoa bezalako une batean, egiten ari diren arau-aldaketa sakonekin eta etxeko konfinamendurekin.

Aipatu dokumentuan honako informazio hau jasotzen zen:

“1. Galdera: Joan al naiteke Gobernuaren bulego presentzialerara, ohiko tramiteak egitera?”

Erantzuna: Ez. Bertan behera utzi dira laguntza eta arreta presentzialak. Telefono bidezkoa edo telematikoa izan da laguntza.

Dokumentuak digitalki aurkez daitezke Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez edo registroelectronico.navarra.es estekan. Dena den, ez presaka ibili: administrazio-prozeduren epe guztiak etenda daude”.

Gainera, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak prentsa-ohar bat atera zuen, aldaketa horiek iragartzeko eta arreta telematikoa eta telefonikoa lantaldeen handitzeaz informatzeko. Informazio hori Nafarroako Gobernuaren sare sozial ezberdinetan ere argitaratu zen.

Normaltasun berri bateranzko trantsizio planean aurreikusitako neurrien gerizpean, maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduaren bitartez zenbait murriztapen nazional malgutu ziren, alarma-egoeraren deklarazioaren ondoren ezarriak, eta deklaratu zen Nafarroako Foru Komunitatea I. faserara pasatzea.

Herritarrentzako Laguntza Bulegoak berrirekitea jomuga, Gobernu Irekiaren eta Herritarren Laguntzako Zerbitzuko Herritarrentzako Laguntzaren Atala arreta presentzialerako itzulera horren baldintzak ebaluatzen ari da. Funtsean, premisa hauek hartu dira abiaburu: herritarrentzako laguntza, langileen eta herritarren segurtasuna eta herritarrentzako laguntzako erregistroak Nafarroako Gobernuaren mailatik koordinatzea.

Zentzu horretan, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren maiatzaren 14ko 59/2020 Foru Aginduak, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko enplegatuen publikoak lan presentzialera pixkanaka itzultzea, 12. puntuan II. faserako aurreikusten du pixkanaka itzuliko direla, normaltasun berriranzko trantsizio-planari jarraikiz, besteak beste herritarrentzako laguntzan diharduten ezinbesteko pertsonak.

59/2020 Foru Agindu horren 8. puntuak herritarrentzako laguntzari dagokionez xedatzen du lehentasuna emanen zaiola arreta telefoniko eta telematikoa. Arreta presentziala izan da nahitaezkoa gertatzen denean soilik, eta horretarako, aretoen edukiera mugatu egiten da eta aurretiazko hitzordua beharko da. Horrez gain

baimentzen du, langileen eta erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna babesten direla bermatzeko, herritarrentzako laguntza-puntuak mugatzea.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren maiatzaren 20ko 61/2020 Foru Aginduaren bidez baimendu egin zen Nafarroako Gobernuaren Herritarrentzako Laguntza Bulegoak irekitzea. Foru agindu horrek 1. apartatuan aipatzen zuen bulego batzuk irekiko zirela, eta 6. puntuan aurreikusten zuen beste bulego batzuk irekitzea ezarritako segurtasun- eta prebentzio-neurriak betetzen joan ahala.

Horrela, maiatzaren 25ean, behin Nafarroako Foru Komunitatea trantsizio-planeko II. fasera igarota, honako bulego hauek ireki dira:

“1. Iruña eta Iruñerria.

a) Alde Zaharra-Zabalgunea:

– Hezkuntza Departamentua. Santo Domingo aldapa, z/g.

b) II. Zabalgunea:

– Osasun Departamentua. Tuterka kalea, 20.

– Eskubide Sozietateko Departamentua. González Tablas kalea, 7.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua. González Tablas kalea, 9.

– Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Karlos III.aren etorbidea, 2.

c) Iturrama:

– Nafarroako Foru Ogasuna. Ezkirotz kalea, 20.

d) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Landabengo poligonoa, E eta F kaleak.

2. Tuterka.

– Nafarroako Foru Ogasuna. Antso VII.a Azkarren plaza, 8.

– Reina Sofía ospitalea. Tarazonako errepidea, z/g.

– Herritarren Laguntza Bulegoa Foruen plaza, 5-6.

3. Lizarra.

– Nafarroako Foru Ogasuna. Koroatze plaza, 2.

4. Tafalla.

– Nafarroako Foru Ogasuna. Teófilo Cortes plaza, 7.

5. Doneztebe.

– Nafarroako Foru Ogasuna. Mercaderes kalea, 6”.

Berrirekitze horren berri Nafarroako prentsa idatziaren, Nafarroako Gobernuaren webgunearen eta sare sozialen bitartez eman zaie herritarrei. Prentsa-ohar bat ere egin zen, berrikuntzak argitzea; besteak beste, aurretiazko hitzordurako sistema.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren maiatzaren 28ko 63/2020 Foru Aginduaren bidez aldatu egin da maiatzaren 20ko 61/2020 Foru Agindua, zeinak onetsi baitzuen Nafarroako Gobernuaren Herritarrentzako Laguntza Bulegoak irekitzea.

Aipatu aldaketaren ondorioa da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Herritarren Laguntza Bulego hauek berrirekitzea:

– “Tuterka, Aranaz Vides kalea, 11.

– Lizarra, Santa Barbara, 2.

– Tafalla, Nafarroa Behereko etorbidea, 14.

– Elizondo, Santiago kalea, 55.

– Irurtzun, Trinitate kalea, 24.

– San Adrián, Santa Gemma kalea, 89.

– Zangoza, Irunberriko etorbidea, 13”.

Azkenik, jakinarazi nahi dizut Gobernantza Publikoko Zuzendaritza Nagusiari ez zaiola berri eman. Bai, ordea, puntualki aldaketa bakoitzaz, nafar herritarrei.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2020ko ekainaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, pandemiaren balizko bigarren kutsatze-kolpe baten aitzineko neurriei eta protokoloiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pandemiaren balizko bigarren kutsatze-kolpe baten aitzineko neurriei eta protokoloiei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (20/PES-00087), pandemiaren balizko bigarren kutsatze-kolpe baten aitzineko neurriei buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

Nafarroako osasun-sistemak lehenbiziko unetik prestatu zituen kontingentzia-planak, zeinak gaurkotze etengabekoan baitaude, bai epidemiologikoki bai osasungintzaren ikuspegitik suertatzen den egoera bakoitzari egokitu eta aurrea hartzeko.

Plangintzaren barruan jasota zeuden eta daude oinarrizko osasun laguntza bai eta ospitaleak eta osasun mentala ere, eta azpimarra berezia jartzen da sareen, mailen eta lantaldeen arteko koordinazioan. Aurreikusita daude bai baliabide materialak bai giza baliabideak, zirkuitu bikoitzak eta askotariko gokitzenak...

Alde horretatik, simulazio- eta monitorizazio-sistema ezberdinak oinarrizkoak izan dira epidemiaren kudeaketa egokia lortzeko (epidemiak apirilean jo zuen goia).

Zorionez, ez zen kolapso-egoerarik gertatu, eta Nafarroako osasun-sistemaren ahalmena izan da Ministerioak fase-aldaketetarako on irizitako elementuetako bat. Hain zuzen ere, lehenbiziko txosten ofizialean, Osasun Publiko, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendaritza nagusiak hitzez hitz zioen: “adierazleak oso positiboak dira bertako osasun-sistemaren ahalmenari dagokionez, eta bermatuta dago akutuentzako oheen eta Zainketa Intentsiboetako Unitateko oheen eskuragarritasuna”.

Nahiz eta agian jadanik ez dauden hedabideen jomugan, osasun-sistemak eta gure profesionalek hiru ildotan dihardute oraindik ere.

Batetik, jarduera arrunta birprogramatuz eta berreskuratuz (unerik okerrenetan, betiere babes-tu eta lehenetsi ziren arazo garrantzitsu eta gero-raezinak); bestetik, erne egonez eta behar adinako erreakzio-gaitasunari eutsiz, epidemiak birgorakada bat edukiko balu ere; eta, azkenik, COVID-19aren fase honetan funtzionamenduari, diziplinarteko lanari eta abarri buruz ikasitako lezioak organizazio-kulturan barneratuz.

Balizko birgorakada bati aurre egite aldera, Nafarroak jakinarazi zizkion bere garaian ministerioari zenbait parametro, bere erreakzio-gaitasuna neurtzekoak. Halatan, egun batetik bestera bitartean, Nafarroako sistemak modua izanen luke akutuentzako oheen guztizko kopurua egoera arrunt batetik 1.400 postu igotzeko, 1.690 ohetik 2.486ra pasata (% 47 gehiago). ZIUen kasuan, eta denbora-tarte berean, modua legoke 92 postu gehitzeko; hau da, 82tik 174ra pasatzeko (halako bi baino gehiago).

Oroitarazi beharrekoa da ezen, orain arte bizi izandako egunik latzenetan, 812 ohe behar izan zirela (apirilaren 1ean), eta ZIUen 95 gaixo izan zirela (apirilaren 5ean). Gaur den egunean, 64 pertsona daude ospitaleratuta; horietatik, 11 daude ZIUen, gehienak Nafarroako Ospitalegunean, zeina baita sistema integral honen guztiaren pisua eta lidergoa gainean hartu duena. Ez da hemen kontabilizatu kanpaina-ospitale baterako proiektu osatu bat, mutur-muturreko mailetarako aurreikusia, eta ezin da ahaztu tarteko baliabideen aukera, beharrezkoa balitz.

Babes indibidual eta kolektiboarekin zerikusia duten materialei dagokienez, hornidura- eta berronidura-bide ezberdinei esker ez da stock-hausturarik inoiz gertatu, eta gaur egun denborarepe aski itxuroso baterako moduko erreserba estrategikoak dauzkagu kontzeptu gehienetan.

Azkenik, eta ministerioari igorritako beste txosten berriago batzuetan ere adierazi den bezala, azken asteotan, datu epidemiologikoen bilakaera positiboaz harago, areagotu egin dira PCR probak (83,9 proba 1.000 biztanleko; guztira, 54.778 proba, halako moldez non PCR gehien egiten dituzten erkidegoetatik laugarrena baikara), bai eta arlo ezberdinetan eta populazio-talde

ezberdinei eginiko beste antigorputz-test batzuk ere; oinarrizko osasun laguntzan indartu egin dira kontaktuen eta kasuen jarraipena egiteko lantaldeak, osasun publikoarekin lankidetzan, hori epe berri honetako giltzarrietako bat baita balizko kasu berrien antzemate goiztiarra bermatzeko eta birgorakadak mozteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Ordu-
na

Galdera, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdean 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarte zenbait zerbitzu direla-eta jasotako erreklamazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdean 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarte zenbait zerbitzu direla-eta jasotako erreklamazioei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 20/PES-00054 galdera idatzia aurkeztu du, jakiteko zenbat erreklamazio jaso diren Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdean 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra bitarte. Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Herritarren eta Erien Arretarako Zerbitzuan 2019ko maiatzaren 29an jasota ageri diren erreklamazioak:

Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua kentzea: 0.

Pediatrarik ez egotea: 15.

Beireko eta Pitillasko berrantolaketa: 3.

Erriberriko Osasun etxean jasota ageri diren erreklamazioei buruzko informazioa honako hau da:

Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua kentzeagatik aurkeztutako erreklamazioak: 1.466 sinadura 2019ko otsailaren 22tik 2019ko apirilaren 4ra.

Pediatrarik ez egoteagatik: 451 sinadura.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Ordu-
na

